

PRIBATUTASUN-POLITIKA

Pribatutasun-politika honek (aurrerantzean, “**PRIBATUTASUN-POLITIKA**”) arautzen du, oro har, **BASQUE CULINARY CENTER FUNDAZIOAK** (aurrerantzean, “**BASQUE CULINARY CENTER**”) nola tratatzen dituen zure datu pertsonalak, zeinak ematen baitzizkiguzu <https://goe.bculinary.com/> domeinu-izenaren bidez (aurrerantzean, “**WEBGUNEA**”) sarbidea duen webgunearen erabiltzaile zaren aldetik, barne direla blog-zerbitzuak, sare sozialak edo WEBGUNEAREN bidez une bakoitzean eskuragarri dauden beste funtzionalitate batzuk. Horretaz guztiaz gainera, kontuan hartzekoak dira atal, formulario edo WEBGUNEKO zerbitzu batzuetan jasotako berariazko aurreikuspenak, zeinen bidez informazioa ematen baitzaizu, eta, hala badagokio, adostasuna eskatzen.

BASQUE CULINARY CENTERREK eskubidea erreserbatzen du PRIBATUTASUN-POLITIKA aldatzeko, lege-, jurisprudentzia- edo administrazio-eskakizun berriei eta WEBGUNEAREN bidez une bakoitzean gauzatuko diren jardueri erantzutearren, zure eskubideak eta interesak kontuan izanda beti.

Dena den, zure PRIBATUTASUN-POLITIKAN sartzeko baliabide tekniko guztiak emango dizkizugu, datuak babesteko araudian jasotzen diren informazio-betebeharrak behar bezala betetzeko.

1. Zein da zure datuen tratamenduaren arduraduna?

Datuen tratamenduaren arduraduna BASQUE CULINARY CENTER FUNDAZIOA da (aurrerantzean, “**BASQUE CULINARY CENTER**”), zeinak egoitza soziala Donostian (Gipuzkoa) baitu (Juan Avelino Barriola pasealekua, 101. zk.), eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatua baitago (erregistro-zk.: F-253. IFKa: G-20998100).

BASQUE CULINARY CENTERREK datuak babesteko ordezkarri bat izendatu du, pribatutasunaren kudeaketaz eta kontrolaz arduratuko dena. Helbide honetan jar zaitezke harremanetan harekin: dpd@bculinary.com.

2. Nola lortu ditugu zure datuak?

Datuak zuregandik lortu ditugu, bide hauetatik: (i) WEBGUNEAN nabigatzean bete dituzun formularioak (adib. Informazioa eskatzeko formularioa); (ii) telefono-dei bat; edo (iii) kontsultarako mezu elektronikoa bat.

Emandako datu pertsonalak hirugarren batenak baldin badira, ziurtatzen duzu hirugarren horri PRIBATUTASUN-POLITIKA jakinarazi diozula, eta haren baimena jaso duzula guri datuok emateko, aurrerago zehazten diren helburuetarako.

Horretaz gainera, jakinarazten dizugu zure sare sozialetako datuak balia ditzakegula TRATAMENDUAREN ARDURADUNAK sare sozial bakoitzean dituen profil korporatiboen bidez, betiere sare sozial bakoitzean zehaztutako baldintzetan.

3. Zer motatako datuak tratatzen ditugu?

BASQUE CULINARY CENTERREN tratatzen ditugun datuak zerorrek emanak dira, eta bide hauetatik jaso ditugu: webgunean nabigatzen ari zarela gurekiko harremana formalizatzeko erabiltzen ditugun formularioak, posta elektronikoa edo telefono-dei bat, eta TRATAMENDUAREN ARDURADUNAK sare sozialetan dituen profilak.

Zehazki, kategoria hauetako datuak tratatzen ditugu:

- Harremanetarako datu identifikatzaileak (izena, abizenak, helbide elektronikoa, telefonoa...).
- Interneteko nabigazio-datuak (IP helbidea, webguneetako bisitak, wifi-sareetarako konexioak, etab.).
- Ahotza, dei bat egiten baduzu.

4. Zer helbururekin eta zer legitimazioekin tratatzen ditugu zure datuak?

Helburu hauek ditu zure datu pertsonalen tratamenduak:

- Erabiltzaile gisa egiten duzun erregistroa kudeatu eta tramitatzea, ahal denean.
- WEBGUNEAREN bidez zure eskura jarritako eduki eta zerbitzuen erabilera kudeatzea, barne direla blogeko zerbitzuak, sare sozialetakoak edo WEBGUNEAREN bidez eskuratu daitezkeen beste funtzionalitate batzuk.
- WEBGUNEAREN bidez edo telefonoz egiten dituzun kontsultak edo erreklamazioak tramitatu eta kudeatzea.
- Interesatuek BASQUE CULINARY CENTER zentroak eskura jartzen dizkien bideetako edozeinen bidez egiten dituzten kontsulta edo erreklamazioei buruzko txosten estatistikoak egitea.

Zure datu pertsonalen tratamendua, araudi aplikagarriaren arabera, honetan oinarritzen da:

(i) zure adostasuna, horretarako gaitutako mekanismoen bidez zuk borondatez emandako datu pertsonalak jasotzeko unean emandakoa; eta (ii) BASQUE CULINARY CENTERREK dagokion analisi estatistikoa egiteko duen interes legitimoan oinarrituta.

Tratamenduaren oinarria zure adostasuna denean, edozein unetan eta doan erreboka dezakezu adostasun hori, 7. atalean zehazten den moduan.

5. Nori jakinarazten dizkiogu zure datuak?

BASQUE CULINARY CENTER legez behartuta dagoen kasuak alde batera utzita (zerga-administrazioak, Justizia Administrazioa edo beste administrazio publiko batzuk), ez dago aurreikusita zure datuen berri ematea, ez eta datuon nazioarteko transferentziarik egitea ere, ezta datu horiek kontserbatzeko ere.

6. Zenbat denborarako gordeko ditugu zure datuak?

Oro har, bildu ziren xederako beharrezko izaten jarraitzen duten bitartean gordeko ditugu, hori baino lehen ez baduzu tratamendurako adostasuna errebokatzen (hori bada zilegitasunaren oinarria) edo datuak ezerezteko eskatzen, bai eta BSK Legal & Fiscal-ek legezko betebeharrak betetzeko beharrezkoa den denbora gehigarrian ere.

Kasu guztietan, BASQUE CULINARY CENTERREK baditu datuak arazteko barne-politikak, bere esku dituen datu pertsonalak gordetzeko epeak kontrolatzeko; beraz, litekeena da jaso ziren helbururako beharrezkoak edo egokiak ez direnean ezereztea.

7. Zer eskubide dituzu?

Datuak babesteko araudiak zure datu pertsonalen gaineko eskubide batzuk aitortzen dizkizu, tratamenduak irauten duen bitartean baliatu ahal izango dituzunak. Hauek dira eskubideak:

- Zure datuetara irispidea izatea: eskubidea duzu zure datuetara irispidea izateko, zuri dagozkizun zer datu tratatzen ari garen jakiteko.
- Zure datuak zuzentzeko edo ezerezteko eskatzea: egoera jakin batzuetan, eskubidea duzu zuri dagozkizun eta guk tratatzen ditugun datu pertsonaletatik okerrak direnak zuzentzeko, edo, are gehiago, datu horiek ezereztu ditzagun eskatzeko, baldin eta, besteak beste, jasotako helburuetarako beharrezkoak ez badira.
- Zure datuen tratamendua mugatzeko eskatzea: egoera jakin batzuetan, eskubidea duzu zure datuen tratamendua mugatzeko eskatzeko; kasu horretan, erreklamazioetarako edo haietatik defendatzeko bakarrik gordeko ditugu datuok, datuen babesari buruzko araudian aurreikusten den bezala.
- Datuen eramangarritasuna: egoera jakin batzuetan, eskubidea duzu dagozkizun eta eman dizkiguzun datu pertsonalak jasotzeko, erabilera arrunteko eta irakurketa mekanikoko formatu egituratu batean, eta beste tratamendu-arduradun bati emateko.
- Zure datuen tratamenduari aurka egitea: egoera jakin batzuetan, eta zure egoera partikularrarekin zerikusia duten arrazoiengatik, eskubidea duzu zure datuen tratamenduari aurka egiteko; kasu horretan, datuak tratatzeari utziko diogu, non eta datuok ez diren gorde beharrekoak premiazko arrazoi legitimoengatik edo izan daitezkeen erreklamazioen kasuan defentsa egiteko.

Era berean, tratamenduaren oinarria adostasuna baldin bada, noiznahi adostasun hori erretiratzeko eskubidea duzu; horrek, halere, ez dio zilegitasunik kenduko adostasuna erretiratu aurretik egindako tratamenduari;

Eskubide horiek baliatu ahal izango dituzu idatzizko eskaera bat bidalita BASQUE CULINARY CENTERRI 1. atalean adierazitako helbidera edo mezu elektronikoko bat helbide elektronikoko honetara: dpd@bculinary.com.

Zure eskubideak baliatzean gogobetetzen ez bazara, erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzu datuak babesteko agintaritza eskudunaren aurrean (Espainian, Datuak Babesteko Espainiako Agentzia).

Agintaritza horrekin harremanetan jartzeko, haren webgunera jo dezakezu: www.aepd.es.

8. Segurtasun-neurriak

BASQUE CULINARY CENTERREK konpromisoa hartzen du konfidentzialtasun osoz eta sekretu-betebeharra betez tratatzeko erabiltzailearen datu pertsonalak, datuak babesteko araudian ezartzen denarekin bat. Horretarako, behar diren segurtasun-neurri teknikoak eta antolakuntzazkoak hartuko ditu zure datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko eta datu horiek aldatzea, galtzea eta baimenik gabe tratatzea eta/edo eskuratzea saihesteko, teknologiaren egoera, gordetako datuen izaera eta jasan ditzaketen arriskuak kontuan izanik.

9. Cookie-politika

Halaber, jakinarazten dizugu WEBGUNEAK cookie-politika bat ere baduela. [Esteka](#) honetan dago eskuragarri.